

Abade - Eguenerako

Elizkizun ta Otoitzak

A. Willibrordo Menke

Yaregilearen Abadeak eginak

eta alemaneratik euskerara, Apostolu-bakuntzako

R. M. A.

abadeak itzuliak



Eusko Argitaldaria - Sarantz

Abadegoa zer dan

Yaungoikoaren deien artean guren ta anditasunean lenengo abadeen deia (bokazioa) da Luŕean. Abadea Yaungoiko ta gizonen bitartekoa da, Yaungoiko misterioen arduraduna, Yaungoikoaren itz-zabaltzailea, autortegian aita, erien (gaixoen) adiskidea ta ilteko dagozanen poztzailea, eskainlaria, Kristoren ordezkoa.

¡O zein andi ta agurgari dan abadeen arazoa! Berai emon izan yake Anditasunaren Yauna Sagarako (Konsagrazioko) itzez yatsi arazteko eskubidea, ezpanez Yauna bedeinkatzekoa, eskuetan eukitekoa, euren bulaŕean artu ta besteai ar-araztekoa.

Abadea, soineko berariz yantzia, Yesukristoren ordezkoa da ta beronen izenean Yaungoikoari apal ta aŕentsu berarentzat eta eŕi guztiarentzat eskaŕiak egiten dautsaz.

Abadeak meza emotean Yaungoikoa goratuten dau, aingeruak poztu, Eleiza sendotu, biziai lagun egin, ildakoai

atsedena emon eta bere buruak ondasun guztietan arte artzen dau.

Eguen guren (santu) egunean emon eutsen Kristok bere apostoluai Mezako opari gurena (sakrifizio santua) eskainteko eskubidea, itz onen bidez «egizue au neure izenean». Pasko-gauean pekatuak parkatzeko al izatea emon eutsen. Zerura igon-arteko egun aretan beste eskubide batzuk artu ebezan beragandik: irakatsi ta bataiatu ta yauri edo zaintzekoa.

Oregaitik Eleizak sineskizuntzat irakasten dau: Yaungoikoaren Eleizan abadego berezi bat dago, atarako al izateduna; sakramentu bat (ordeuako sakramentua) abadegora deituak bear dabezan graziak emoten dautsena eta gainera Eleizan opariak egiteko ta sakramentuak emoteko ta zerura bidea irakasteko eskubideak.

Apostoluak euren abade-arazoa bete eben. *Apostoluen egiteak* izendun Istoriak diño (II, 42) «sinestedunak apostoluen irakaskizunean eta ogi-zatitzean eta otoitzetan iraunkorak ziran».

Apostoluak euren abade-eskubideak beste batzuri bere zabaldu ta emon eutsezan eskuak zabalduaz ta otoitzez. Alantxe izan zan autatua Matias, apostolutzat, Yudas azpisugearen urango. Paulo ta Bernaberi baru ta otoitz egitez ta esku-zabaltzez emon eutsen euren arazoa. Apostoluak euren eskuz sagaratu ta laguntza sorbarietan ezarten ebezan abade bariak. Paulok Timoteo abade egindakoan onelan argitu eban «ez opoñik itxi zugan dagoan grazia, batzarreko abadeen esku-ezartez zuri emona» (I. Tim. IV-14). «Biztu egizu nire esku-ezartez zugan dozun Yaungoikoaren grazia». (II, Tim. 1-6).

Apostoluak legez euren ondorengoak bere eskubideak emon eta abade bariak soñarazo ebezan, Yesukristoren apostolu bariak, Yesusek eurai emondako al izate osodunak.

Lenengo diakonu Estebanez idazki gurenak diño bere arpegia auzitegi nagosian aingeru batena lakoxea agertu zala. Mende guztietan argi eder batek legez zirt-zart egin dau Abadegoaren

grazia doako ta andiak. Eri sinestedu-
nak dagikezan otoitzetan datza (dago)
zelanbait grazia orek abade elizkoi ta on
askogan zirt-zart egiten yaraitzea.

Oregaitik «eri zintzoa, zure abadeen
alde otoitz egizu». (Gregorio andi gure-
naren itzak).



LENENGO ATALA

Lenengo elizkizuna

Asierako otoltza

Betiko Yaungoiko ta Aita: Zure aurrean gagoz Abadegoaren ondasun andiagaitik gure esker ona Zuri erakusteko; eta bide batez Zure gurentasunaren serbitzariantzat Zure laguntasuna ta onespina (bedeinkaziñoa) apal eskatzen dautsugu.

Zure seme Yesusek esandako ta Ebangelioan irakurten doguzan itz gurenak ondo uler daiguzala ta gure eskariak adi egizuz Yauna, gure Yaun Yesukristo beraren izenean. Amen.

Lenengo irakurkizuna

«Niri zeru luřetan al izate guztia emona izan yat. Zoaze, beraz, ta efi guztiak argitu egizuez, Aitaren ta Semearen ta Gogo Gurenaren izenean bataiatzen dozuezala ta agindu dautsuedazan

gauza guztiak beteten irakatsiz. Ta ¡ona!
Neu zeuekaz nago egunoro aldi-amai-
rarte. (Mat. XXVIII, 18-20)

«Sinestea entzuketikoa da (itzaldie-
tatik dator, esan gura dau) ta entzuna
Kristoren itzetikoa». (ad Rom. X-17)

«Alan Berak izendatzen ebazan ba-
tzuk apostolu izateko, beste batzuk
igarle, beste batzuk Ebangelio-zabal-
tzaile, beste batzuk artzain ta irakasle,
santuak euren arazogintzan Kristoren
gorputz mistikua osatu daien eratzeko,
guztiok sineste-bakartasunean eta Yaun-
goiko seme ta gizon osoaren ezagutzean
alkar bat egin daigun, Kristoren adin
betearen neuriz». (ad Ephes IV 11-14).

Otoitza

Yaungoikozko ta eregezko Abade ta
gizadiaren Maisua: Zuk Zure apostoluai
eta aldi guztietako euren ondorengoai
al izate osoa emon dautsezu, Zure itza
gizonai iragañi ta irakatsi ta Aita ta Seme
ta Gogo Gurenaren izenean bataiatzeko.

Orni egizuz jañen! Zure abadeak ya-
kintzaz ta indañez euren arazo andia

arduraz bete daien. Eŕege ta lenen edo printzipe, txiro ta lagun abafekoen aurrean Zu ezagutarazteko apostolu-zintzotasunez ager daitezala. Yaungoiko ta lagun urkoarentzako egiazko maitetasun-sua piztu egizu euren biotzetan. Emon egieuz Gogo Gurenaren doiak. Arimen alde lan egiteko gar bat izegi bedi euren baŕuan. Zure izen santua goratu ta gizonak zerura-bideratuz baŕnaikotuten eztan gar sutsua. Atsekabe ta esetsaldietan (persekuzioetan) sendotasuna emon egiezu eta gugaz sineste gurenarengaitik eranak edo ilakizateko gertu begoz beti, Zure naia ori baldin bada.

Sineste bagako ta txafekoen artean Ebangelioa zabaltzeko misiolari gartsuak sor bediz. Sendatu egizuz aŕisku guztietan. Euren atsekabe ta zorigaitzetan atsegin amaibakoa izan zakioez, Yauna. Eta guri iguzu indaŕa eurentzako otoitzetan aspertu ezkaitez, onelan eurakaz lan egin daigun, Luŕean yainkozko eŕeinua zabaldu dadin. Amen.

Apostolu ta Ebangelari gurenak,
otoitz egizue guretzat.

Gotzain ta Autorlari gurenak, otoitz
egizue guretzat.

Abade ta Abadekide gurenak, otoitz
egizue guretzat.

Bigarren irakurkizuna

«Yaunak nire Yaunari esan eutsan:
yesari zaite nire eskuma aldean, zure
arerioz nik zure oinen aurkia egin arte.
Zure al izatearen makilea ataraten dau
Yaunak Siondik: zure arerioen artean
agintari izan zaite. Yaunak zin egin
dau ta eztau oregaitik damu. Zu betiko
Abade, Melkisedeken arauz zara.
(Psalm. CX, 1-4).

«Yesusek, beti baitirau, betiko aba-
degoa dauko. Oretxegaitik Yainkoagana
bere bitartez uferatuten diranak beti
bere yaregin (salbau) dagikez, euren
alde otoitz egiteko beti bizi da-ta. Ore-
lako Abadeburu bat beara yakun: gu-
rena, utsik bakoa, garbia, pekatari-ar-
tetik berezia ta zeru-gainera yasoa; bes-

te abadeak legez, lenengo bere ogenak-aitik eta gero eñiarenakaitik opariak (sakrifizioak) egunoro eskaini bear eztabezana, au bere burua eskainirik bein egin ebalako». (ad Hebreos VII, 24-27).

«Oregaitik Yainkoari eten baga eskeñak guk bere emoten dautsaguz, gure agotik Yainkoaren itza artu ebanean, ezebalako artu gizon itza bailitzan (egitan danez) Yainkoarena legez baño.

(I ad Thesal. II, 13).

«Aparitan ziarduenean Yesusek ogia artu, onetsi (bedinkatu) ta puskatu eban eta bere ikasleai emon eutsen «ar egizue» esanez, «ar egizue ta yan, au nire soina (gorputza) da. Eta edatontzia (kaliza) arturik, eskeñak erakutsi ebazan eta itz onezaz emon eutsen «Edan egizue onetatik guztiok, au Testamentu bariko nire odola baita, pekatuak parkatzeko askoren alde ixuriko dana». (Mat. XXVI, 26-29).

Otoitza

Yainkozko yaregile, Testamentu bariko Abadeburu betirokoa, Zuk zeure

opari (sakrifizio) odoltsuz kurutze-zugatzean biheroste (redencion) ta yaregitea ekañi dauskuzu. Opari au munduko altara askotan Meza gurena eskaintean egunoro bihergiten da. Zure abadeak zure ordezko agertzen yakuz. Zeure izenean dagoz altaran. Zeure izenean eskainten dautse Aita zerukoari opari gurena (sakrifizio santua). Abadeburu ta opariki bere Zeu zaitugu.

Guk misterio guren onetan lotsaz eta apaltasunez arteratu nai dogu, zure biherospen edo redentzioko arnariak yarixteko. Guk, Zure biherospeneko arnarietatik ateratuak ezizatearen, alpeheriz edo nagitasunez zure opari guren onetatik inoiz bere eztoigu ufun izan gura. Zeu, Yauna, Zeure abade bakoitzean ikusi ta goratu gura zaitugu.

Eurok euron luferko bizikeran bere Zure, eredu zarean ofen, arauz bebiltz beti eta egunen baten gugaz Zure glorian izan bediz.

Apostolu ta Ebangelari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Gotzain ta Autorlari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Abade ta Abadekide gurenak, otoitz egizue guretzat.

Irugañen irakurkizuna

«Eta nik nire artaldearen puskak yaurtigiak izan ziran alde guztietatik batuko dodaz; eta euren lafetara biurt-araziko dodaz eta azi ta ugaldu egingo dira. Eta euren inguruan artzainak agefaraziko dodaz eta lafatuko dabez. Ordutik aufera eztira ez bildurtu ez izutuko; eta euren kopurutik ezta bat bere bilatua izango, diño Yaunak».

(*Jeremias XXIII, 3-4*).

«Zeuon ardurea ar egizue ta artalde osoarena bere bai, Gogo Gurenak atan zaintzaile yañiak zaree-ta, Yainkoaren Eleiza bere odolez Berak irabazia, lañatzeko».

(*Act. Apost. XX, 28*).

Zuen nagusien esanak bete egizuez ta menpeko izan zakioez. Eurak zuen adi dira, zuen arimen bañi emon bear-ko dabe-ta. Eta au atseginez egin beie ta ez uluka. (*Ad Hebraeos XIII, 17*).

Otoitza

Yainko andi ta Aita ona: eskerak emoten dautsuguz, Zure abadeak gure arimen artzain izatea erabagi dozulako. Iguzu Zure laguntasuna euren mintzoa (boza) dantzugun, burubideai garai-kiozan ta euren egiteak gure egiazko kristau-bizikeraz, gurentasunaren euskañi izan dakiguzan, eurakaz bai alai-aldi ta bai atsekabeetan zeruko bidean irauten dogula.

Guk gure gotzain ta abadeakan gogo gurenak guretzat emondako zure orde-zkoak dazaguz (ezagutzen doguz). Eurai izan gakioezan seme-maitasunez beti zintzo. Egunoro zure graziaz bete egizu euren biotza, beti zeureak zintzo izan daitezcan eta bizi ta ilak epaitzera zatozanean gurendurik aurkitu daizuzan. Amen.

Apostolu ta Ebangelari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Gozain ta Autorlari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Abade ta Abadekide gurenak, otoitz egizue guretzat.

Bigarren elizkizuna

Asierako otoitza

Betiko Yaungoiko ta Aita: Zure aurrean gagoz abadegoaren ondasun andiagaitik gure esker ona Zuri erakusteko; eta bide batez Zure gurentasunaren serbitzarietzat Zure laguntasuna ta onospena (bendizioa) apal eskatzen dautsugu.

Zure seme Yesusek esandako ta Ebangelioan irakurten doguzan itz gurenak ondo ulertu daiguzala ta gure eskariak adi egizuz, Yauna, gure Yaun Yesukristo beraren izenean. Amen.

Lenengo irakurkizuna

Gizon-artean autaturiko edozein Abadeburuk Yainkoagazko artu-emonetan besteak serbitzea dauko arautzat. Oregaitik euren pekatuakaitik doai ta opariak (sakrifizioak) eskini bear dautsoz. Ezyakin ta usdunak eruki izan bear dauz, bera bere aultasunez zama-

tua dago-ta. Beraz opariak eskiniko dauz bai eñiaren ta bai bere buruaren pekatuakaitik bere. Eta inori etxako zilegi (etxako eder egiten) duintasun au soineratzea; bada, Aaron izan zanez, Yainkoak ofetarako deitua izan bear dau: Yesukristok berak bere Abadeburugoa ezaban artu bere eritziz. «Zu Nire semea zara, Nik egun (gaur) sortu zaitut» esan eutsanak emon eutsan arazo ori.

(Psalm. II, 7).

Beste toki baten bere bardin diñotso Aita betikoak: «Zu betiroko Abade, Melkisedeken arauzkoa zara».

(*ad Hebraeos V-6*).

«Zin zinez diñotsuet: artegian atetik sartu bearean beste nunbaitetik baru-ratuten dana, lapur ta mausari da. Ate-tik sartzen dana, bañiz, artzaina da. Oni atezainak zabaltzen dautso ta ardi-ak beronen mintzoa (boza) dantzue ta euren izenez ardiak deitu ta lañera ateraten dauz. Eta ardi guztiak ateratean, euren aurretik doa ta ardiak dañaikioz, bere mintzoa dazaguelako.

(*Yoan. X, 1-4*).

«Kristoren izeneko geznariak (embajadoreak) gara gu, gure agoz Yainkoa aolkari dozuela. Kristoaren Yainkoarekin adiskidetu zaitezela eskatzen dautsuegu. Pekaturik ezagutu ezeban Axe pekatu biurtu eban, geu Agan Yainkoaren zuzentasun egin gendizen».

(II Cor. V, 20 21).

Otoitza

Yaingoikozko yaregile (salbatzaile) Yesukristo, Zure abadeakan euren gizatasun apala duintasun andiz yantzi dozu Abadegoa sortu zeuanean. Etxako inori zilegi (etxako eder egiten) arazo guren onetan Zeuk deitua izan baga sartzea. Zuk zeure mastirako langile duinak eskatzea agindu zeuskun. Eta orain Zure eriaaren barutik Abade gurenak sortu daitezala eskatzen dautsugu. Euren arazo andirako, yakintza ta elizkoitasuna izan dagien, ekinen ekinenez gertu bediz. Zeuk bialdu egizuz eta artzain-arazo onetan deitua izan ezta nik inor ezpedi sartu.

Gugan gorde egizu Zure Eleizako Abadegoaren onerizte sakon bat. Gizonen aultasunaren gainetik eta geroago geiago ezagutu daigun ordenako sakramentu andiaren gurentasuna eta Abadegoaren izate sakona. Alkartasun bat bere ezpedi izan abade bagakorik. Eurak emon oi dauskuen ogi biziaren gose gara. Sakramentu gurenak emon oi dauskuezan grazien egañi bere bai. Egunoro gagoz zure aurrean eskuak zabalik doguzala eta eskeñak emoten, abadedun egin gauzuzalako. Zure Aita zerukoari gure pekatuakaitiko doari ta opariak eskini daikeoguz. Emon iguzuz abade elizkoiak, abade gurenak, eurakaz gu beti zure aginduen bidean ibili gaitezen. Amen.

Apostolu ta Ebangelari gurenak (santuak), otoitz egizue guretzat.

Gotzain ta Autorlari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Abade ta Abadekide gurenak, otoitz egizue guretzat.

Bigaŕen irakurkizuna

(*Paulo gurenaren itzak*).

«Uste dot, bada, Yainkoak gu, azken apostoluok, ilak izateko ipiniko gauzala, mundu ta aingeru ta gizonen ikuskizun eginak gara-ta. Kristogaitik ero, gu; Kristogan burutsu, zuek; gu makal, zuek azkar; zuek andiki, kaxkar gu. Orainarte gose ta egaŕi gara, zarpazar gabilz, matarlakoak emoten dauskuez ta bizitoki eginik eztogu. Geure eskuz lanean diardugu. Guri birao, guk onetsi; guri esetsiak, guk yosa; guri iraunak, guk otoitzak. Orainarte gu mundu onetako satsa ta guztien zimaufa baigintzazan gaukez.

Eztautsuet nik au, zuek lotsarazteko, idatzi, ene ume kutunak zaree-ta, bizkortzeko baño. Zuek Kristogan umezainak milaka eukiaŕen, aita askori keztozue, ostera; bada neu nauzue Kristogan Ebangelioaren bidez zuen sortzaillea». (I *ad Corinthios* IV, 9-16).

«Eskuarteau (Ebangelioaren ondasuna) luŕezko ontzietan daroagu, oneta-

rako indara Yainkoari egotzi dakion, ez guri. Ertsirik gagoz (estu garabilez) beti, baina itorik ez; esetsiak gara, ez ostera bertan bera itxiak. Yesusen eriotzea gure gorputzean daroagu beti, Yesusen bizitza bere gure gorputzean ager dadin. Bizi gareanok beti gagoz Yesugaitik iladinean, Yesusen bizitza gure aragi ilkoñean ager dadin. Oñelan guban eriotzeak diardu, zuekan bañiz bizitzeak; baina sineste bardindun garealarik, idatzita dagoanez: Sinistu nebalako itz egin neban. Guk bere sinesten dogulako itz egiten dogu. Badakigu Yesus biztu ebanak gu here Yesusegan biztu ta zuekaz yañiko gauzala. Dana da zuekaitik, Yainkoaren gloriarako izan dadin askoren biotzetan esker onaren alderako bizi dan grazia.

Oñegaitik ez kara kikiltzen; bestera, azaletik ageri dan gure gizon au makaltzen bada, bañukoa egunean egunean bañiztuten da. Emen guretzat loñ arin ta apur batekoa danak guban miragarro betiko gloriarako gauza astun bat soñarazten dau. Begiok eztaukaguz

ikusten diran gauzai begira, ikusten ez-tiranai baño, begietan daukaguzanak apur bateko baitira; ikusi ezin diranak, ostera, betiko.

(II ad Corinthios IV, 7-18).

Otoitza

Yaungoiko ta gauza guztien Yauna: Zure eskuetan datza gizonen bizia. Zuk egunoro euren gaiztakeri ta ogenak (pekatuak) yasaten dozuz. Munduari begiak zabaldu egiozuz Abadeari dautsan gofotoaren itsusitasuna ikusi dagian eta Zure Eleiza ta Eleizgizonak gizonen ongile andienak dirala ezagutu al izateko.

Zure gotzain ta abadeai emon egiezuz gaiztoen esetsietan (persekuzioetan) bear dabezan sendo ta zuurtasuna, Zure Eleizearen ona ta Zure izenaren goitasuna baino besterik nai izan eztagien.

Bialdu egizu eurakana aingeru poz-tzaile bat euren Olibete-mendiko ordu guztietan. Eta euren bizitzako kurutzebidean garailari izan daitezala.

Gizonak emen daukezan samintasun ta atsekabeak ezer eztira Zure serbitzariantzat gertua daukazun gloriaren aldean. Kementsu izan bediz, Norbaitek euren aurka txarto esaten diarduanean, euren ezpanetan ezar egizuz, Yauna, ontasunezko itzak; atseginezkoak, balzituten dabezanean; bakezkoak, gorotatzen dabezanentzat.

Zagoz Zeu eurakaz euren arazo guztietan eta Zure Seme Yesusen antzekoak izan bediz eurak, gurutzean legez glorian bere. Amen.

Apostolu ta Ebangelari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Gotzain ta Autorlari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Abade ta Abadekide gurenak, otoitz egizue guretzat.

Irugañen irakurkizuna

(Mateo gurenaren Ebangeliotik artua)

«Aldi atan Yesus aloretan zear ebilen zapatuz; ta bere ikasleak, gose izanik, galburuak itzindu ta yaten asi ziran. Eta

fariseoak ori ikusita esan eutsen: Oñ, zapatuz egitea zilegi eztana Zure ikasleak egiten diardue. Baina Berak esan eutsen: ¿Ezaldozue irakurri Davidek zer egin eban, bera ta beragaz egozanak gose zireanean? Zelan, yauretxean sartu ta abadeak baño, ez eurak ez eura-kaz egozanak, ezin yan egikezan ogiak yan ebezan? Ezaldozue Legean irakurri abadeak zapatuz yauretxean eztabela barurik egiten eta pekaturik ez? Ona bada, nik diñotsuet emen yauretxea baino gurenago dana emen dagoela. Eta bazenkie zer dan «erukia gura dot, oparirik (sakrifiziorik) ez» etzenukie bein bere ogen edo eru bagakorik gaitzetsiko, bada Gizasemea (Yesukristo bera) zapatuen yaube da. Andik yoanda aren Sinagogara etorri zan. Eta ¡ara! esku igardun gizon bat bertan, eta Bera salatzeke itaune egin eutsen esanez: Zilegi eteda zapatuetan sendatzea? Berak, bariz, esan eutsen: ¿nor da zuen artean, bere ardi bat zapatuz zulo batera yausi, ta andik atarako eztabena? ¿Ardi batek baino gizon batek, zenbat geiago eztau

balio? Zilegi da, beraz, zapatuetan on egitea. Orduan gizonari esan eutsan «zabaldu esku ori». Eta zabaldu eban ta bestea baizen sendo gelditu yakon. Fariseoak, bañiz, andik alde eginda, Aren aurka bildu ziran zelan il arazoko eben asmateko. (Mat. XII, 1-14).

Otoitza

Biotz oneko Yaregilea (salbatzailea): Zuk kristautasunaren oinañi legez egin dozu maitetasuna eta oñetantxe ezagutu gura dozuz zure ikasle egiazkoak. Zure Eleizan bego beti jañen! lagun urko-aganako maitetasuna. Zure abadeak txi-ro (pobre) ta beartsuen onerako zintzo biraue (iraun beie). Sinestedun biotzak maitetasun gartsu baten iratzañi egizuz, euren bitartez zure otseinak (abadeak) ontasunezko lanak sortu ta zabaldu al izan dagiezan.

Zeu izan zaite, eñukizko yaregile Ori, euren ardura ta neke guztien sari edeña. Euren arteko bakotxak abade-lanaren amaieran zure agur au entzun al izan

dagiala (1). ¡Aurá! otsein on ta zintzo ori, gauza gitxitan zintzo izan azalako, gauza andien gainean ezañiko aut, sar adi ire Yaunaren atseginean». Amen.

Apostolu ta Ebangelari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Gotzain ta Autorlari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Abade ta Abadekide gurenak, otoitz egizue guretzat.

Irugañen elizkizuna

Asierako otoitza

Yainko ta Aita betikoa: Zure aurrean gagoz Abadegoaren ondasun andiagaitik gure esker ona Zuri erakusteko; eta bide batez Zure gurentasunaren serbitzariantzat Zure laguntasuna ta onespena (bedeinkaziñoa) apal eskatzen dautsugu.

Zure seme Yesusek esandako ta Ebangelioan irakurten doguzan itz gu-

(1) (Mat. XXV, 21).

renak ondo ulertu daiguzala ta gure eskariak adi egizuz, Yauna, gure Yaun Yesukristo beraren izenean. Amen.

Lenengo irakurkizuna

«Zorionekoak zuek Nigaitik birakatu ta esetsi zagiezanean ta zuen aurka guzuzez txarto esaten diardue-nean. Poztu ta alaitu zaiteze, zuen saria zeruan yoritsu dalako. Olantxe zuen aurretiko igarleak esetsiak izan baitziran. Zuek luřagazko gatza zarie. Eta gatza gazatu ezkeru ¿zezaz gazitu? Ezetarako ezta gauza, atara ta gizonak zapaldua izateko baño. Zuek munduko argia zarie. Mendi-tontorean yařitakouria ezin ostendu diteke. Zuzi bat izio ta eztabe lakaripean ipinten, argimutilgainean baño, etxeko guztiai argi egingadioen. Ořelan zuen argiak gizonen aurrean zirt-zart egingo dau, zuen egite onak ikusita zeruetan dagon zuen Aita goretsi dagien».

(*Mat.* V, 11-16).

Otoitza

Yainkozko Yaregilea: Zuk Zure Apostoluai aurretiaz yakinarazo zeutsen gaiztoen aldetik izango ebezan atsekabe ta esetsiak. Zure abadeak iraunkor izan beitez munduak Zure baimenez emoten dautsezan kurutzeetan eta euren atsekabe ta naiezetan Zure itz guren eta gurzurtan ezina atsegingari izan dagiela, batez bere Zu euren ure ta maitasunez beterik zagokiezala yakiteaz.

Ezpediz inoiz euren arazo ona iztekoak izan. Eurak luferko gatzak dira. Gure gogozko bizia makaldu ta il egingo litzate euren abade bitartetasunik ezpagendu. Eurak munduko argia dira. Eurak izan beitez, Yauna, euren esanez gu betiroko bidean zuzentzekoak. Ezkagizuz zigortu abadegoa kenduaz. Emon egiguzuz arimen biderakusle on ta egokiak, gu geure bear izanetan argitu, geure minaldietan atsegindu ta Zeroren grazien betetasunez bizitza ta eriotzan bedinkatu gagiezan. Amen.

Apostolu ta Ebangelari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Gotzain ta Autorlari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Abade ta Abadekide gurenak, otoitz egizue guretzat.

Bigarren irakurkizuna

«Lenengo astegun atako aratsaldean, ikasleak baturik egozala ta yudearen bildurez ateak itxirik eukezala, Yesus etori ta erdian yari yaken, esanez: Bakea zuei. Ta au esandakoan eskuak eta saiatsa erakutsi eutsen. Ikasleak, Yauna ikusita, poztu ziran. Bañiro esan eutsen: Bakea zuei. Aitak bidali nauen legez, Ni zuek bidaltzen zaituet. Au esanda, arnasa emon ta esan eutsen: Gogo Gurena (Espiritu Santua) ar egizue. Ogenak (pekatuak) parka dagiezuezanai parkatuak izango yakez ta lotu dagiezuezanai loturik geldituko yakez».

(*Yohan. XX, 19-23*).

«Zin zinez diñotsuet: Zuek luñean lotu dagizuen zernai, zeruan bere lotua izango da; eta zuek luñean aska dazi- zuen, askatua zeruan bere.

(*Mat. XVIII, 19*).

Otoitza

Yainko yaregilea, gizonen biñeros- lea: Zuk zure abadeak penitentziako Sakramentu zabaltzaile egin dozuz, pekatuak parkatzeko al izate osoa eurai emonaz. Zure maitetasunak yainkozko emoi onetzaz gizadi pekatariari eginda- ko on andiaren alde esker andiak emon gura dautsuguz. Bizi garean artean egunoro ezagutu dagigun Sakramentu onen balioa ta biotz eskertsuz ar dazi- guzan beronen ontasunak.

Argitu egizuz gure abadeak eta Zu- re ordezeko diran aldetik bete daziela, artzain onak legez, autortegian euron arazoa.

Argitu egizuz gure arimen izakerea ezagutu dagien, gure bear izan guztie- tan burubide onak emon dagiguez, eta gure utsak bete dagiezan.

Emon egiezu aulentzako egoaria, ogendientzako erukia, umeentzako maitasuna. Zeu zaitugu, Yauna, euren agoz itz egiten dauskuzuna. Zeure bir-erospeneko grazia da euren bitartez datorkiguna. Ezkaizala, Yauna, Sakramentu guren onetatik urundu gizarteko kaxkañeri bat ez batek, egunen baten geure burua Zeruko zorientasun betikotik urundua ikusi eztaigun. Amen.

Apostolu ta Ebangelari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Gotzain ta Autorlari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Abade ta Abadekide gurenak, otoitz egizue guretzat.

Irugañen irakurkizuna

Yaunak Moisesi esan eutsan: Aaron ta bere semeai esaiok: Israelgo semeai onelantxe bedinkatu ta esango dautsezue: Yaunak bedinkatu ta gorde agiala. Yaunak bere arpegia erakutsi begik eta ire eruki izan daila. Yaunak bere arpegia euganatu ta bakea emon dagikala. Eta

Israelgo semeen gainera nire izenari dei egingo dautse eta nik bedinkatu egingo dodaz. (Num. VI, 24-27).

Ire arima osoz Yainkoaren bildur izan adi ta bere Abadeak agurtu egizak. I egin induana ire indar guztiez maite izan egik eta bere arduradunak ezeizak bertan bera itxi, Yaungoikoaren bildur izan adi gogo andiz ta bere abadeak goratu egizak. Emoioek aginduta dagoan legez asikinen zati bat eta Yaunari eskiniko dautsak gurentzeko oparia (sagrifikioa) ta gauza gurenen asikinak.

(Eccles. VII, 31-35).

Zuen artean lanean ari diranai eta Yaunaketz zuen buruzagi ta aolkari diranai, jañen! eskertsu izan zaiteze, senideok. Daroen lanagaitik maite maite izan egizuez ta bakea izan bedi zuen artean.

(I ad Thes. V, 12-13).

Otoitza

Yainko Yaregilea: Zuk Zure abadeak al izate aundiz ornidu dozuz. Zure itzabaltzaile izatez gainera Zure misterio

emaileak bere badira, bai Zure onespenaren (bendizioaren) bitartekoak bere. Eurok abade-bendizioz seaskatik ilogearaino lagun egiten dauskue. Eurok be-dinkatzen dabez gure umeak eta etxea, gure lan ta egiteak, gure bizitza ta erio-tzea. Saritu egizu, Yauna, guri bai soin ta bai gogoan (animan) egin oi daus-kuen on guztia. Euron lan guztietan alaitasunik andiena Zeu izan zaite, eu-ron naiezetan atseginik onena, esetsie-tan indar andiena, iluntasunean argi bizi bat eta ilorduan saririk ugariena. Zabal egizuz Zure esku onesleak Zure Abadegoaren gainean aldi guztien az-kenerrate. Amen.

Apostolu ta Ebangelari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Gotzain ta Autorlari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Abade ta Abadekide gurenak, otoitz egizue guretzat.

Laugarren irakurkizuna

Yesukristoren Otoitza bere Aita betikoari

«Aita, garaia eldu da; Zure Semea goretsazu, Zure Semeak Zu goretsi zai-
zan. Gizaki guztien gainean al izatea
emon dautsazu, Bere ardurapean yañ
dozuzan guztiai betiko bizitzea emon
daioen. Betiko bizitzea, bañiz, au da: Zu
ta Zuk bialdutako Yesukristo Yaungoi-
kotzat ezagutzea. Nik goretsi zaitut, lur
gainean emon daustazun egitekoa bu-
ruru dot. Orain, bada, Aita, goretsi
nagizu Zugan, luña sortu aurrean Zeugan
neban gloriaz, gizartetik emon dausta-
zuzan gizonai Zure izena erakutsi dau-
tset. Zureak ziran ta niretzat emon
daustazuz eta Zure itza onartu dabe.
Orain ezagutu dabe Zuk emon zeusta-
zan gauza guztiak Zureak dirala. Emon
daustazuzan itzak nik emon dautsedaz
ta eurak onartu dabez ta Zugandik sor-
tu nazala zinez ezagutu ta Zuk bialdu
nauzula sinetsi dabe. Euron alde otoitz
egiten dot; ez munduaren alde, emon

dauztazuzan onen alde baño, Zureak dira-ta. Eta Nire gauza guztiak oro Zureak dira ta Zureak neure; eta benetan goretsia izan naiz. Onezkero eznago munduan; onek, bañiz, munduan dagoz ta Ni Zugana noa. Aita gurena, emon daustazunok Zure izenean zaindu egizuz. Gu legez bat izan ditezen. Ni eurakaz nengoan artean, Zure izenean zaintzen nebazan. Zuk emondakoak gorde nebazan eta aetatik bat bere ezta galdu, seme galgaría baño. Idatzia bete dadin. Orain, bañiz, Zugana noa ta itzok gizartean egiten dodaz, Nire poza eurakan bete betean euki dagien. Nik zure itza emon neutsen eta munduak goñoto izan eutsen mundutar etziralako, Ni bere mundutar eznazan legez. Eztautsut eskatzen gizartetik atara dagizuzala, gaitzetik zaindu dagizuzala baño. Eztira mundutarak, Ni bere mundutar eznazan legez. Egiarentzat berezita eukizuz; egia, bañiz, Zure itza da. Gizartera Zuk bialdu nauzun legez, Nik bere gizartera bialdu dodaz; eta eurokaitik nire burua bereizten dot,

eurok bere egiarentzat bereziak izan daitezcan. Eztautsut, ostera, euron alde bakarik otoitz egiten, euron autofagai-tik nigan sinetsiko dabenen alde bere bai. Guztiak bat izan daitezen, Zu, Aita, Nigan ta Ni Zugan bat garean legez, gizarteak sinetsi dagian Zuk Ni bialdu nauzula. Nik emon dautset Zuk Niri emondako gloria, geu bat garean legez, eurok bere bat izan daitezen. Ni eurokan ta Zu Nigan, oso bat izan daitezen, ta orelan gizaki guztiak ezagutu dagien Zuk bialdu nauzula ta Ni baizen maite izan dozuzala. Aita, Ni nagoan tokian Niretzat emon dautsudazanak bere egotea nai dot, Zuk Niri emondako gloria ikusi dagien, mundua sortu baino lenago maite izan nauzulako. Aita zuzen ori, mundutarak etzaitue ezagutu; Nik ostera ezagutu zaitut; eta onek bere Zuk bialdu nauzula badazaguet. Eta Zure izena ezagutarazi neutsun eta ezagutaraziko bere bai; Zuk Niri daustazun maitasuna eurakan izan dadin eta eurakan Ni.

(*Yoan. XVII, 1-26*)

Otoitza

Yainkozko Yaregile, Yesukristo. Ain baru barutik otoitz egin zeutsan Zure Aitari, il-aureko gabeen, Zure apostolu ta abade guztien alde. Guk gure otoixkoak Zureagaz batzen doguz Zure ta gure abadeen onerako. Onets egizuz euren lanak Zure mastian. Inoiz eztagiela adorerik euren egikizunetan galdu. Euren dei (bokazio) gurenean beti alai izan bediz. Munduaren gaiztakeri ta deabruaren sapokerietatik gorde egizuz. Makaltzen asi balediz, Zure grazia izan bekie makila ta euskarri. Eritasun ta eskuarterik eza eurakana badoaz, Zerori izan zaite euren osasun ta pozgarria. Zure Biotz guren gurenean bizitokia beuke beti eta egunen baten eurak gugaz eta eurakaz gu Zeruko Zure bizitoki oretara eltzeko zoriona izan daigula. Amen.

Apostolu ta Ebangelari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Gotzain ta Autorlari gurenak, otoitz egizue guretzat.

Abade ta Abadekide gurenak, otoitz, egizue guretzat.

Abadeentzako Letaña

1. Yaungoiko Aita ta Seme ta Gogo Gurena.... entzun gagizuz jañen!
2. Yesus, gure Abadeburu, Eskaingai ta Maisu zarean oñek entzun gagizuz jañen!
3. Onetsi egizuz gure Aita Santu, Go-tzain ta Abadeak entzun gagizuz jañen!
4. Emon egioezu Zure graziaren inda-ña, Zure biotzaren maitasuna ta Zure bizitzako opari-gogoa entzun.... e. a.
5. Sinestean sendoak, lanetan gure-nak eta Zure agindupean zintzoak izan bediz.....entzun e. a.
6. Apostolu-gañez ta martiri-adorez ta autorlari-gogoz bete egizuz..... entzun.... e. a.
7. Ogendiak (pekatariak) Zuganatu, bidebagnetuak zuzendu ta ezyaki-nak argitu dagiezala entzun...e. a.

8. Euren lanetan pozez eta atsekabe-
etan egoariz eta ezbeařetan irau-
penez sendatu egizuz...entzun e. a.
9. Begira egizuz eurakan umetxoen-
tzako maitasuna, gazteak bear le-
gez azteko gařa ta eriarentzako
zintzotasuna.....
entzun gagizuz ĵařen!
10. Bedinka egizuz euren pulpituko
itzak, katekesisko irakaspenak, au-
tortegi ta eri-ondoan emondako
aolkuak (eritziak).....
entzun gagizuz ĵařen!
11. Gorde egizuz inpernuko arerioen
esetsietatik, gizon okeřen iruzufe-
tatic eta pekaturako eretietatik ...
entzun gagizuz ĵařen!
12. Eurakaz gu sinestean bat izan gai-
zala, Yaungoikoaren agindupean
zintzoak eta ekanduetan gurenak.
entzun gagizuz ĵařen!
13. Emon eiguzuz Gotzain ta Abade
ta Misiolari gurenak.....
entzun gagizuz ĵařen!

Munduko ogenak kentzen dozuzan
Yainko Bildots ořek
parka gagizuz, Yauna

Munduko ogenak kentzen dozuzan
Yainko Bildots ořek
entzun gagizuz, Yauna

Munduko ogenak kentzen dozuzan
Yainko Bildots ořek
eřuki izan gagizuz, Yauna.



Otoitza

Yaungoikoaren Seme Yesukristo:
Zuk esan dozu: «Uzta ugari da, neka-
zariak bañiz ufi; eska egiozue uzta-yau-
beari nekazariak bere uztara bialdu
dagizala». (Mat. IX, 37-38).

¡Otoi, Yauna! Zure oinatzai yañai-
tzeko ta Zure mastian apostolu-gañez
lan egingo daben abadeak geitu be-
diz. Sineste bagako ta okerdunak zu-
zentzeko argia ta grazia emon egioezu,
makalak sendotu ta Zure yaurgoa (eñei-
nua) Luñean zabaltzekoa bere bai. Zure
ordezkoak doguzalako, gabiltzan gu be-
ti euren ondoren, eta euren itzak gogoz
entzun ta euren lanai kristau-bizikeraz
erantzuteko laguntasuna emon eiguzu.

Gure eskariak atsegin izan dagizu-
zala, Yauna, eta menderen mendeetan
bizi ta agintzen dozun Oñegan ondo
artuak izan daitezala. Amen.

BIGAREN ATALA

A) Elizako Otoitzak

I. Aita Santuarentzat

Sinestedun guztien artzain ta zuzentzaile zarean Yauna: Zure artaldearen yagole ta aurreko ezañi dozun N-ri emioizu bere menpekoak itzez eta egitez bide onean erabilteko doia, eurakin batera betiko zorionera eltzeko atsegina izan dagian. Amen.

Betiko ta al izate guztidun Yauna: Zure otsein ta gure Aita Santu N-ren eruki izan zaitez eta gozaro eroaizu betiko zorionerako bidean. Zure graziaz Zuri atsegin yatzuna lortu ta osotu dagiala, gure Yaun Yesukristoren bitartez. Amen.

Bariku guren eguneko eskaria

Gure Aita Santu N-rentzat otoitz egin daigun, gure Yaun eta Yaungoi-

koak kristau guztien buru egin dauanez-
kero, oso ta sendo Elizaren buruzagi-
tzan euki dagian, Yaunaren efi guztia
zainduteko.

Betiko ta al izate guztidun Yauna:
mundu guztia menpean dozun Orefek
gure eskari au gogoz entzun ta gure
Aita Santua sendo euki egizu, bere ar-
durapeko efiia Zure sinestean geroago
ta indartsuago izan dadin. Amen.

Parkamendun otoitza

Gure Aita Santu N-ren alde otoitz
egin daigun.

Yaunak euki ta bizkortu ta Luñean
zoritsu egin dagiala ta eztagiala itzi be-
re arerioen eskuetara yausten.

Egunean bein 300 eguneko parkamena (in-
dulgencia). Ilean bein parkamen osoa (plenaria)
oi direan baldintasunpean. (Pio X-gaŕenak 1876r
XI, 26an).

II. Gotzainarentzat

Sinestedun guztien artzain ta zuzen-
tzaile zarean Yaungoiko maitea: gure

eliz-baruti edo diozesis onen zaintzaile ezarri dauskuzun N-ri emoiozu zure grazia, bere menpeko gareanok itzez eta egitez bide onean erabili ta gugaz batera betiko zorionera eltzeko atsegina izan dagian. Amen.

III. Abadegoaren alde

Betiko ta al izate guztidun Yauna: gauza andi ta miragarriak Zeuk soilik egin daikezuz Zure otsein abadeai eta euren ardurapeko gizaldeai Zure doi indartsua emoiezu, egiaz Zure gogoko izan daitezen eta euren gainera beti iraungo dauen onespén edo bedeinkazioaren intza eratsi egizu. Amen.

IV. Eri diran abadeentzat

Betiko ta al izate guztidun Yauna: sinestedunen osasun betikoa zarean Ori eri doguzan abadeentzat Zure laguntasun eske gaukazuz, bañiro osatuak dirala, zure Elizan lanean ekin al izateko.

Yauna: zure gogoaren arabera doaz gure biziaren orduak. Aintzat ar egizuz zure otsein eri diranen eskari ta opariak eta euren alde guk zuzentzen dautsugun guraria, len bai len euren osasunez poztu gaitezen.

Yauna: giza-makaltasunaren euskafi bakarra zarean Oreek eri doguzan Zure otseinontzat Zure laguntasunaren indarra erakuskuzu, eurok, Zure erukiz osatu ta indarturik, Zure Elizan bafiro agertu al izateko. Gure Yaun Yesukristoren bitartez. Amen.

V. Ildako gotzainarentzat

Yauna: apostoluen urengoen artean gotzaingoan zure otsein (serbitzari) au autatu dozu. Oregaitik betiko lagunarte oretara len bai len eroan dagizula eskatzen dautsugu. Gure Yaun Yesukristoren bitartez. Amen.

VI. Ildako abadeentzat

Yauna: apostoluen urengoen artean abadegoan zure otsein N. autatu dozu.

Ořegaitik betiko lagunarte ořetara len
bai len eroan dagizula eskatzen dautsu-
gu. Gure Yaun Yesukristoren izenean.
Amen.

B) Parkamendun otoitza

I. Abadeen gurentasunerako

Jesus, arimen yagole (zaintzaile)
betikoa: entzun egizu abadeen aldera-
ko gure otoitz au. Onetan datza Zure
azken bako guraria. Zure biotzaren tau-
pada samuřenak abadeentzakoak dira,
eurak arima guztien arduradun egin
dozuzalako.

Gu ezkara abade gurendun izateko
duin; baina Zure erukia gure duinezta-
suna baino aundiagoa da. O Jesus, Zuk
abadegorako deitu dozuzanak arazo
onetan goratu daitezen Zeuk alegin
egizu. Eurak autatzean euren nagusiak
argitu egizuz, argitu arimazainak euren
burubidez (kontzejuz), argitu eurak era-
tuteko arduradun diranak. Emoiguzuz
garbitasunean aingeru-antzeko abadeak,

apaltasunean berEGINAK (osoak), serafinak legez maitasun gurenez dirakienak, oparikuntzan kementsuak, Zure omenerako ta arimen on ta gurentasunerako apostolu-gardunak.

Abadeen argia bear daben ikaste bakoen eruki izan zaitez eta euron bitartez iruzuretatik ateratuak izan bear daben langileen eruki bere bai, Zure izenean bide onera etofarazi dagiezan. Zuganaturteko norbait bear daben ume ta gazteen eruki bere izan zaitez. Bai ta minez egon ta poztzaileren bat bear daben gaixoen eruki bere. Gomuta zaitez benetako abade elizkoien bitartez zenbat arima ontasuneratu daikezan. Ongaitik, o Yesus, gose ta egañi direan gizataldeak Zure Biotza samurtu begie. Zure abadeen bitartez Zeuganatu bediz biotzez eri direan gizonak eta mundua ondu bedi, Zure Eliza ezagutua eta Zure Biotzaren yaurgoa (ereinua) zabaldua izan dadin.

Andra Maria, betiko abadearen Ama, kurutzepEAN Semearen opariduna: an Yesusen ikasle kutun Yoane,

Zure Seme Yesusek apaltegian bere Biotz-ondoan euki ebana, lenengo semetzat Zeuk artu zenduan. Gure eskari apal au gogoz entzun eta Zure Yainkozko Semearen Biotzean sar egizu. Zure bitartekotasun altsuak Yesusen Elizari, beti bañiztau daitean, Pentekostes bafi bat lortu begio. Amen.

Egiten dan baktzeko 7 urte ta 7 berogeiko parkamena dau otoitz onek. Oi diran baldintasunetan egunoro egin dagianak ilean bein parkamen osoa (plenaria) irabaziko dau, Pio X-gaŕenaren aginduz (1907-X-27an).

II. Abade guztientzat

Betiko abade goren eta Yainkozko oparidun Jesus: Zure anai gizonai dautsezun maitasun ezin esanekoak bultzatuaz, Zure Biotzeko iturri gurenetik kristau-abadegoa sortu zeuskun. Zure abadeen biotzetara Zure maitasun muga bakoaren ur bizia etentzaka erion bedi.

Zeu bizi izan zaitez euron biotzetan. Zeugan biurtu egizuz, Zeu lakoak izan daitezen, eta Zure

doiak (graziak) Zure erukitasunen erakusle egin bediz eurok. Euron egizunak Zeuk eraginak izan bediz beti. Zure onbide edo birtuteak euren egiteetan agertu eta Zeu yaraian eurokanatu zaiezala, Zure izenean eta Zure gogoaren indarez, munduaren onerako Zeuk egindako lanak egin dagiezan.

Arimen Yaregile Yainkozkoa: ikusi egizuz zein ugari direan egia bako iluntasunetan erdi lo bizi direanak. Gogoratu zein asko direan betiko leza-ertzean sineste baga datzazan bildots gaixoak. Goseti gaixo ta gaztetxo ta makal ta laguntasun baga taldeka dagozanen eruki izan zaitez.

Zure abadeen bitartez zatoz, Yauna, bañiro gugana. Euron biotzetan bizi zareala, Zurea izan bedi euron lana. Eurokaz ibili zaitez bañiro munduari irakatsi ta parkatu ta poza emoten. Euron bitartez emoiguzu bañiro Zure bizia; eta maitasunezko lokari bañi ta gurenez lotu egizuz Yaungoiko ta gizonen biotzak. Amen.

Egunean bein 300 eguneko parkamena. Egunoro otoitz au dagianak parkamen osoa irabaziko dau, konfesio ta komunio-ondoren, il bakotxeko lenengo bariku nai domekan. (Pio X-garenak, 1905-III-3an).

III. Yesusen Biotzari

O Yesusen Biotz guren gurena: Zuk maitasun aundienez Zure odol yainkozkoa gizonentzat isuri dozu, arimak ondu ta zerurako irabazteko. Abadeen lanak Zure onespen ta doariz (bendizio ta graziaz) indartu dagizuzala bañu bañutik eskatzen dautsugu. Zure itz gurena gañ andiz zabaldu begie, ogendien (pekatarien) biotzak astindu ta onak ontasunean kemenduz.

Gure artetik urun izan bediz gaizkinaren esetsiak. Gaizbide ta bildura, bekaitz ta ikusiezin, goñoto ta erakuste txarëtatik gorde gagizuz. Zure grazia ta maitasuna biotz guztietan bizi bedi, guztiok, azkenez gomutetan gareala, pekatuak baztatu, ontasunari ekin eta alkañi erakusmen (ejemplu) ona emonaz, elizkoiak izanik, or goion betiko zorionean bizi al izateko. Amen.

Yesusen Biotz Yainkozkoa: pekatar-
riak biurtu, ilten dagozanak gorde ta
Purgatorioko arimak goratu egizuz.

Otoitz au egiten dan baktxean 300 eguneko
parkamena irabazten da. (Pio X, 1906-VII-13an).

IV. Yaungoiko Yaregileari

Yainkozko Yaregilea: abadeen adis-
kide zarean Orek abade guztiai Gogo
Gurenaren (Espiritu Santuaren) zazpi
doiak egunoro igori (bialdu) egiezuz,
bizitzan eta eriotzan guztiontzat guztia
izan daitezen. Umeen arterako emoiezu
egoafia (pazientzia), eri diranentzako
erukia, txiroentzako apaltasuna, Eliza
gurenaren arerioentzako kemena. Neka-
tu-ezinak izan bediz irakasten, iraupen
andikoak autortegian, gure Yauna emo-
teko beti gertu. Infernukoentzat eta
arako direanentzat bildurgafi ta biotz
onekoentzat paketsu izan bediz. Infer-
nu ta infernuzale direanentzat bildur-
gafi izan bediz. Bake-zabaltzaile izan
bediz biotz onekoakaz.

Doazan lekuetara lagun egin begioe
Zure onespenak, dagozan lekuetan Zure

bakea sar bedi. Eurok bedinkatutakoak Zeure bedeinkazioa izan begi. Apostolu egin egizuz, guren egin egizuz. Amen.

Yesusen Biotz eukaristikoa, abadebiotzaren eredu zarean Ori, gure eŕuki izan zaitez.

300 eguneko parkamena du otoitz onek. (Pio X, 1907 IX-10an).

D) Beste Otoitz batzuk

I. Abade-egunerako eskintea

O Yaungoikozko yaregile (salbatzaile) Yesus: Zuri, Zeure ordeko dozuzan elizgizonak munduaren yaregitea (salbazioa) auŕeratzeko arduradun egin dozuzan Ori, Zure Ama Mariaren bitartez, abade ta abadegaien santutasunerako, egun oso au ta neuronen otoitz ta lan ta poztasun ta estualdi guztiak opa dautsudaz. Emon eiguzuz, Yauna, abade benazko santuak, Zure maitetasunez suturik Zure aintza (gloria) baino besterik gura eztabenak.

Baŕuko ta atetiko aŕisku guztietatik gorde egizuz eta batez bere uŕundu egi-

zuz euren onbide ta gurari ederén arerioen asmo gaiztoetatik.

O abadeen Ama samur Maria, guztiok zure magalpean ar egizuz. Eta bidea galdurik dabilzan elizgizon eruka-riak Zure eskuak bide oneratu ta Artzain Onagana eroan begiz. ¡Áren!

II. Arimazain ta abade guztien alderako otoitza

O Yesus, Yaungoiko yaregile edo salbatzailea: gure Elizaren atsegin-atsekabeak abadeen ardurapean daukazu-
zan Yesus maitea: ene baruko garik an-
dienaz Zure biotzeratu gura neukez nire arimazainaren eta abade guztien inten-
tziño ta apostolukuntzako bear izan guztiak. Egiazko santutasunez geroa-
go beteago egizuz. Zeure ta arimen maitasunez beteriko biotz andi, apos-
tolu - biotza, emon egiezu, Zeugan eurak santu eginda, euren eliztarak santutu ta zerura bidean ezafi daitezana. Zure graziak biotza gainezkatu begioe.

Euren burubide edo kontzejuz ta bizikeraz eta Eliza ta Aita santu ta go-

tzainai dautsen maitasun ta zintzotasunez guretzat beti ontasun-bidean eredu izatea egizu, Yauna.

Yesus maite maitea: bedinka egizu euren abade-lana ta sakrifiziozko bizia. Bedinka egizuz euren otoitz guztiak, altaran eta aitortegian eta irakastegian (pulpituan) eta katekesis ta batzar ta gaixoen inguruan esaten dabezan itz guztiak bere bedinka egizuz, Yauna.

Yaungoiko yaregilea: abadekuntzara, bai mundurako ta bai komentuetarako, Zeuri zintzo yaraikiko dautsuen arima on onai dei egiezu. Eta ildako abadeen arimak betiko atsedena len bai len izan dagiela.

Egidazu neuri bere sinestedun ta esangin izateko gogo egiazko bat, ene arimaren arduradun abadearengan beti Zure ordezkoa ikusi ta bere irakaspenak zintzo ta gogo onez yaraiki dagidazan. Amen.

III. Eri direan arimazaintzat

Yainkozko Yaregile Yesukristo: Luñean bizi ziñanean eri asko ta askori

atsegina ta osasuna emon zeutsen. Eta orain Zuk maite dozun Zure adiskidea eri da. Nire arimazain eriarentzat obe-kuntza ta pozaldiaren eske nagokizu. Bidali egiozu bera sendatuko dauan aingeru bat eta, Zure naia onelan bada, emon egiozu bañiro osasuna.

Nik egungo eguneko otoitz ta egite guztiak beretzat opa dautsudaz eta nire otoitz au gogoz entzun ta ontzat ar egizu. Amen.

IV. Mundu guztiko

abadegaiantzako otoitza

Yainkozko Yaregile ta betiko Abade Goren Yesukristo: Zeu zara Zeure abadeak berarizko maitasunez begiz yoten dozuzana. Nire biotzeko gañik sutsuena mundu guztiko abadegaiantzat egin nai dautsut otoitz au. Euron ikaste-urteetan egiazko abade-gogokizunez bete egizuz. Emoiezu sineste bizi ta pozgañi bat, otoitz-zaletasuna Zuzganako ta Zure Eliza gurenarentzako maitasun beroa, arimen onerako gaña

eta altarako Sakramentu ta Zure Ama maitagañiarenganako yoera aundia. Argitu ta onetsi (bedeinkatu) egizuz euren maisu ta eratzailleak eurakazko egikizun sakon ta arduratsuetan.

Maria, abadeen Ama ona, Zeure magalpean ar egizuz abade guztiak. Ikaste-urteetan dauken euren deia-
ren aurkako añisku baruko ta atetikoe-
tan zaindu egizuz. Emoiezu beti osasun
ona, ikasteetan auferapena ta bear da-
ben eskuarte, bat bere abadegotik txiro-
tasunak (dirurik ezak) baztertu eztadin.
Egon zaitez euren ondoan gaztezaroko
añisku guztietan, biotzaren garbitasuna
osorik gorde dagien eta noizbait Zure
altarara, abade txukun ta doatsu dirala,
igon al izateko.

Abadegotik urun begoz dei ta duin-
tasun baga altararatu nai dabenak.

Apostolu gurenak, Gotzain ta Abade
zerutafak, gazteen magaldun zareen
guren guztiok, abadegaien bitarteko
izan zaitez. Zaindu ta zeuon ardurapetu
egizuez, egiazko apostolu ta Yaungoiko
ta gizonen bitarteko gartsu izan daitezen

eta oinaze ta atsekabe artean dagozan arima gaixoak ugari zerura eroan daginezan.

V. Abade onak izan daiguzan

Jesus: uzta-yaubeari langile onak bere luñera bidali daizala guk eskatzea nai dozu. Sortu beitez, ofetarako, Zure Elizan ta batez bere gure eliz-bařuti (diozesis) onetan abadeak ugari ta onak, Zure biotz yainkozko ori eredu dabela, euren egikizunetan Zure Aita zerukoaren omena ta Zuk Zure odolez yaregin dozuzan eliztařen ontasuna zalduko dabenak.

O Maria, Yaungoiko ta Abade Goren dogun Yesusen Ama, geitu egizuz Bere abadego yainkozkoan eta bere esku-bideetan sarturik dagozanak, Lurbira osoan eta batez bere gure Eřian. Zure yainkozko semeak bialdutakoen yaraiztaile izan daitezzen.

Gizon guztien Ama maitagari zarean Ofek emon eiguzuz abadeak, abade gurenak emon eiguzuz. Amen.

VI. **Yesus seiñaren Teresatxo**

gurenak egindako otoitza

O Yesus, betiko Abade Gorena: Zure abade au Zeure Biotz gurenaren ardurapean gorde egizu, inok kalterik ezin egin dagioen Biotz ořetan. Zure gorputz gurena dauken esku sagartuak zikinkeri baga gorde egizuz. Zure odol domutsuz gořiturik daukazan ezpanak garbi gorde egiozuz.

Zure abadego goragariaren zantzuz silaturik dauan biotza garbi ta luřeko loi baga gorde egiozu. Zuganako oneritzi ta zintzotasunean goratu bedi ta munduaren kutsurik eztagiala izan. Ogi ta ardaoa aldatuteko al izatearen gainera gizonen biotzak aldatzeko indařa emoi-ozu. Beronen lanak arnari edo frutu ugariz bedinka egizuz eta gero noizbait betiko bizitzako buruntzi edo koroia izan begi. Amen.

VII. Euren deiari (bokazioari)

zintzo erantzuten eztautsen

abadeentzat

Yainkozko Yaregile Yesukristo: ardiakaitik bizia emoten dauan Artzain ona Zu zara. Batez bere abade bide bakoan Artzain ona izan zaitez, Zuk Zure eñiaren biderakusletzat autatu ta Zure sagaratze (konsagrazio) ta deiari txarto erantzuten dautsen abade erukañien Artzain ona. Zintzo yaraikiten dautsuentzat dozun biotza izan egizu erukañi onentzat bere.

Zure maitasun erukioñaren grazia eldu bedi onen biotzera. Argitu egizu euron gogoa ta indartu euron naia, orainarteko pekatu ta okeñeri guztiak itxi ta Zure altara gurenera ta Zure Eñiagana damaturik biurtu daitezana.

O Yaregile ontasuntsua: gomuta zaitte abade okertuen arimak bere Zure odolez erosiak dozuzala ta abadegoan sartzean Zeure zantzudun egin dira-

la. Gaizkinaren eskupetik len bai len
atera ta bide oneratu daitezen eruki
izan zakioez. Ontasun aundiz ar egizuz
guk abade erukari onen onerako zuzen-
tzen dautsuguzan otoitz ta opariak.
Amen.



Bilabidea

Lenengo atala. Elizkizunak

I. Abadegoa zer dan.

II. Lenengo elizkizuna. A) Asierako otoitza—B) Lenengo irakurkizuna (Testamentu bañiko esakera batzuk).—C) Otoitza—D) Bigañen irakurkizuna (Testamentu bietako esakera batzuk)—E) Otoitza -- F) Irugañen irakurkizuna (Testamentu bateko ta besteko esakerak)—G) Otoitza.

III. Bigañen elizkizuna A) Asierako otoitza—B) Lenengo irakurkizuna (Testamentu bietako esakerak)—C) Otoitza—D) Bigañen irakurkizuna (Paulo gurenaren itzak)—E) Otoitza—F) Irugañen irakurkizuna (Mateo gurenaren Ebangeliotik artua)—G) Otoitza.

IV. Irugañen elizkizuna. A) Asierako otoitza—B) Lenengo irakurkizuna (Mateo gurenaren itzak)—C) Otoitza

—*D*) Bigarren irakurkizuna (Yoane eta Mateo gurenen itzak)—*E*) Otoitza—*F*) Irugarren irakurkizuna (Testamentu bietako itzak)—*G*) Otoitza—*H*) Laugarren irakurkizuna (Yesukristoren Otoitza bere Aita betikoari)—*I*) Otoitza.

V. Abadeentzako letaia. Otoitza.

Bigarren atala. Otoitzak

A) Elizako Otoitzak

I. Aita Santuarentzat. Bariku guren egunerako eskaria. Parkamendun Otoitza.

II. Gotzainarentzat.

III. Abadegoaren alde.

IV. Eri direan abadeentzat.

V. Ildako gotzainarentzat.

VI. Ildako abadeentzat.

B) Parkamendun Otoitzak

I. Abadeen gurentasunerako.

II Abade guztientzat.

III. Yesusen Biotzari.

IV. Yaungoiko Yaregileari.

D) Beste otoitz batzuk

I. Abade-egunerako eskintea.

II. Arimazain ta abade guztien alderako otoitza.

III. Eri direan arimazaintzat.

IV. Mundu guztiko abadegientzako otoitza.

V. Abade onak izan daiguzan.

VI. Yesus Seiñaren Teresatxo gurenak egindako otoitza.

VII. Euren deiari zintzo erantzuten eztautsen abadeentzat.

E) Abade-egunerako Otoitza




ABADE-EGUENERAKO OTOITZA


ORACION PARA EL JUEVES SACERDOTAL

Andante ERIAK=EL PUEBLO


R. M. A.



Jau-a Zu-re a-pais-ak bu-rus e-ta
Tus mi-nis-tros oh, Se-ñor, en i-de-m




bi-ots-es Gu-re-ak er-e ba-di-tu-çu. Ber-on bi-tar-tes
yen a-mor Son nuestra ri-ca po-se-sión. Por sus tra-ba-jos




Zer-oi-en-du ta ar-çai-tua - zu.
haz-nos Tu-yos loh, Sal-va - dor


SAIL BATEK=UN GRUPO




Zuh dei-tu - ak di-ra çu Zu-re-çau - a e - ra -
Tus e-le - çidos e-llos son pa - ra con-se-çuir que no-



ma - te - ho e - ta Bi-ots sa — mur oi - e -
so - tros en e - se Tu tier - no Co - ra -



tan — bi - si çai - tes - en,
són vi - vir po - da - - mos,




Zu e - men maj - ta - tua or çoi - en çe - ro
y con a - le - çria - - a su - ba - mos lue - ço




Zer-oi-en-ak i - za - te - ho.
e - se sa Tu Man - sión.

ERIAK=EL PUEBLO




Gu-re-ah er-e ba-di-tu-gu. Ber-on bi-tar-tes
Sonnuestra ri-ca po-se-sión Por sus tra-ba-jos




Zer-of-en-du ta ar-gai-taa-zu.
haz-nos Tu-yos joh, Sal-va-dor.

22.


Moderato SAIL BATEK=UN GRUPO




Zu-re A-mak er-e mai-te mai-te
De tu San-ta Ma-dre son ellos muy a-



dit-u Gol-go-tan la-gun Ye-an-e a-
ma-dos, pues Juan ya sa-cer-do-te en su mar-




paiz-a bai-tzu-en e-ta an Zer-of-eh,
ti-rio la acom-pa-ñó y a-lli. Je-sús Tú




Ye-sús, Ber-e se-nie-ta Zu-re e-nai
mis-mo hi-jo Su-yo y her-ma-no Tu-yo hi-

ERIAK=EL PUEBLO.




e-gin zen-u-en. Ber-
cis-te de él al mo-rir. Por



on bi-tar-tes Zer-of-en-du ta ar-gai-taa-zu.
sus tra-ba-jos haz-nos Tu-yos joh, Sal-va-dor

III.

Stesso tempo SAIL BATEK=UN GRUPO



Saz be-di Zu-ve su-a
Tu fue-go pe-ne-tre

a - pais - en bi - otz - e - tan ta be - tor ge - re
el pe - cho sa - cer - do - tal y ven - ga luc - go

ber - on bi - otz - e - ta - - tik gu - re bi - otz otz -
de su co - ra - zón al nues - tro el fri - o sa -

e - ta - ra, be - ro - tu - gaiz — en, Ye - sus
hu - yen - tar pa - ra que to - dos, oh,

on - a, Ye - sus gu - re - a, guk gu - si - ok
buen Jesús oh Je - sus nues - tro pa - ra que po -

Zu mai - te mai - te i - za - te - ko.
da - mos te - ner — te tier - no a - mor.

ÉRIAK EL PUEBLO

Yaun - a Zu - re a - pais - ak, bu - ruz e - ta
Tus mi - nis - tros oh, Se - ñor, en i - de - as

bi - otz - ez, gu - re - ak er - e ba - di - tu - gu. Ber - on bi - tar - tez
y en a - mor, son nuestra ri - ca po - se - sión. Por sus - tra - ba - jos

Zer - ot - en - du ta ar - gai - tza zu. ¡At - en!
haz - nos Tu - yos ¡oh Sal - va - dor. ¡A - men!

